


ZER BERRI SAPAKO LANGILEAK ETA ZUZENDARITZA NEGOZIATZEN /  
ALBERTO SUDUPEK ALKATETZA UTZI DIO SEI URTEREN OSTEAN

# El pitpilean

*Soraluzeko Hamabostekaria* 100. alea 2004ko azaroaren 26an




***Ehun ale, mila kontu!***



Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean

# GOL

GOL industriak S.A.  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
20590 SORALUZE



# LIMPIEZAS TREJO S.L.

## Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea  
Telf.: 943 75 25 57  
Fax: 943 75 25 56  
20590 SORALUZE





# Debarreneko leihoa

MIKEL ALBERDI

Zeinen eroso den etxera joan eta Pilean-eko alea etxean jasotzea, baina eta bertako informazioa prentsa idatzian biltzen bezala, zergatik ez gauza bera egin telebistan? Zenbat eta hurbileko informazio gehiago jaso, orduan eta hobeto.

Debagoienean duela lau bat urte gauzatu zen beste medio batzuen artean GOITB izeneko Debagoieneko telebista bat, eta, bertako errealizadore naizen aldetik, oso proiektu interesgarria bezain erakargarria dela uste dut, bailaran izan duen oihartzungatik eta baita harreragatik ere. Nik neuk bizipen horiek guztiak barrutik bizi izan ditut; hala ere, ederra litzateke Debarrenean, Debagoienean bizi izan ditudan bizipen horiek ere berri-ri ikusle gisa bada ere bizi izatea.

Herri komunikabideak -tartean telebista- bere lekua aldarrikatzen ari dira, eta horrelako zerbitzu bat debabarrendaren zerbitzura izatea denbora kontua baino ez dela erakusten digu; izan ere, orain gutxi bailaran euskarazko telebista bat garatzeko egitasmoa osatu berri dute Debarreneko zazpi herrietako euskara elkarteek, Debegesak eta Mendaroko Udalak.

Hasiera guztiak zailak izan ohi dira, eta topikoa izan arren egia ere bada. Hala ere, Mendaroko Udalak Mendaro Telebis-

taren azpiegitura osoa egitasmoaren esku jarri du, euskara elkarteak eta erakundeak elkarlanean ari dira, ziur ilusioa soberan dela... Nork ez du nahi bere herrian edo ingurukoetan gertatzen denaren berri eduki? Baliteke batzutan gure usterako, interes gutxiko gaiak jorratzen direla ikustea baina oso posible ere bada, sarri, garrantzia handirik ematen ez diegun gauza txikienez ere, gure arreta piztea. Errepideak, kirol taldeak, udal kontuak, lana, etxebizitzak... Beste askoren artean, guregan eragin zuzena izan dezaketen gaiez ari gara. Horiek jorratzen ari dira besteak beste, Urola TB, Zarautz TB, Goierri TB, GOITB bera eta beste hainbat, ea bada, Debarreneko egitasmoa hau abian jartzen den eta aurrekoekin bat egiten duen, etorkizunean sare indartsuago baten partaide izan dadin.

Orain gutxi, Amatiño-k esan zuen etorkizuneko telebista "kartara" izango zela.

Debarreneko egitasmoak mahai gainean ditu osagaiak; osagai horiek behar bezala eta era egokian erabiliz, gure herri eta bailararen berri emango duen euskarazko bailarako telebista bat ikusteko aukera izango dugu laster. Euskalduna, hurbila, zuzena, gardena eta bailarako errealitatearen berri emango duen primerako platera. On egin!

## Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. bai, ehun ale egin ditugu. Stop. bada zerbait. Stop. kostata eginak izan dira danak. Stop. hau bebai!. Stop. baina merezi dau ahalegina egitiak. Stop. ez? .Stop. deitu eta esan mesedez. Stop. bihar dogu noizipehinian... Stop. "ei Pil. Stop. maitte zaittugu!" entzulia. Stop. ze onak zaretan, ez!. Stop. bakarrik, maitte zaittugu!. Stop. guk Musika Eskolari esaten dotsagu. Stop. eta Santa Zezilia eguna poztu zeben musikarixei bebai. Stop. eta Gaztelupeko Hotsak disketxiari. Stop. eta SAPAko langilieri. Stop. eta Argentinako plazentziarrei. Stop. eta gure iragarlieri. Stop. eta gure bazkideri. Stop. eta hain geizki pasatzen daben hainbeste emakumeri. Stop. eta Euskal Herrian Euskarazi bere 25. urteurreninan ondo pasatu deixin. Stop. eta Itxaropenako jubilatuei. Stop. eta gure kolaboratzaileei. Stop. eta laguntzaileei. Stop. eta banatzaileei. Stop. espetxean urrin daren presueri. Stop. eta batez be ointxe arteherriko alkate izan dan Alberto Suduperi. Stop. besarkada bero bat. Stop. eta animorik bihotzekuenak. Stop. eta gure eskerrona beti errespetzu tratatu gaitualako. Stop. eta aurrera egiten lagundu doskulako bere konfidantza emonaz. Stop. 100. Ale hau zuendako danondako doia. Stop. Gure poesia oso merkea da, herriaren ahotik jasotzen dugu debalde eta debalde ematen diogu herriaren belarriari. Stop. eutso!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonia 943 75 13 04

comunidades.kzguinea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU

pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Eguzkifne Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

**Publizitatea:** Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

**Logotioa:** Jon Gabilondo

(943751304 tel.)

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Azala:** Pablo Galarraga

**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## 100. Aleko gehigarri berezia



# Zorion agurrak



**Koldo Crespo**  
Azaroaren 24an  
4 urte  
Zorionak!! Ondo  
pasa txikito!!  
Etxekuen eta batez  
ere Ibon txikiaren  
partetik.



**Ibon Crespo**  
Azaroaren 12an  
2 urte  
Zorionak pottolo!!  
Muxu haundi  
haundi bat.  
Etxekuen batez ere  
Koldo txikiaren partetik.



**Jon Agirre**  
Abenduaren 12an  
25 urte  
Zorionak!!  
Besarkada bat eta  
zure egunian ondo  
ondo pasau deizula!  
Etxekuen partetik.



**Naroa Gil Ayora**  
Azaroaren 8an  
urtebete  
Zorionak prexioxa!!  
Muxutxo asko!!  
Markel, Aita eta  
Amaren partetik.



**Edu Poombar**  
Abenduaren 3an  
27 urte  
Asko maitte zaittugu  
Pom!  
Pil-pileanekuon  
partetik.

## jaiotakoak Irea Rascon Criado hildakoak

Emilio Fernandez  
Martin Lizarralde  
Jon Iñarra

# Gutunak

## Gaztañerre azokako erromeria dela eta

Egun dexente egon nintzan Gaztañerre azokan zain, honek bazkarixa edukiko genduala eta igual parranda eta dantzan egiteko aukera esan nahi zebalako, (aspaldi honetan ez daukat holako gauza asko egiteko aukera handirik). Oso ondo pasatu neban egun osua, kuadrilakuekin aspaldi egon barik nenguan parranda egiten eta merezi izan zeban. Nere beste nahi bat dantza egitia zan, normalian ez jata inportaze musika daguan, ixa edozein musikarekin dantza egiteko prest bait nago, baina egun hortan eta gainera erromerixia zala eta, fandango eta arin arin batzuk dantza egingo nebala uste neban. Ba ez!!! Ez behintzat erromerixan, ez nintzan hasierara heldu eta ez dakit hasteko trikitixaren bat jo zeben ala ez, baina gero bi edo hiru lagun jua ginan AMAIUR taldiarengana hiru aldiz trikitixa bat joteko eskatzen eta EZ ZEBEN JO!!!!!!.

Inguruan antolakuntzako batzuk zebizen, eta haietako batek esan zoztan AMAIUR taldia kontratatu zebela soñua zeukalako. Ba, hau izan zan nere asarria haunditzeko bihar neban arrazoia!

Taldiarekin hitz egin eta ez dakit zelako aitzakixak jarri zituzten. Oso ondo pasatu neban eguna eta dantza asko egin neban oso gustora, baina nere ustez zerbait falta izan zan.

**Amaia Argarate**

## Sakabanaketaren inguruko pasibitatea

Irailaren 8-an, Asier eta Iñakiren heriotzen III. Urteurrena zela eta, kalera atera ginen, dispartsiorean erantzuleak eta babesleak(egoera latz honen aurrean hitz politik esan eta ezer egiten ez dutenak) salatu nahian. PSOE-ko egoitzaren aurrean eta PNV-ren aurrean dispartsiok erahildako bi gorputzen siluetak marraztu genituen, egoitzotako jendearen pasibitateak eragiten dituen ondorio latzak adierazi nahian.  
**DISPARTSIOARI UTZI!**

**Soraluzeko Elkartasun Kideak**



## LEHIAKETAK

### Amodio gutun lehiaketa

Zabalik dago Jardunen Amodiozko gutunen lehiaketa parte hartzeko epea. Datorren urtarrilaren 7a izango da lanak jasotzeko azken eguna. Bestalde, amodiozko SMS mezuen lehiaketa ere egongo da aurten. Urtarrilaren 1etik 15era bitartean bidaltzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Gutunak Jardun Elkartera bidali behar dira Errotalde Jauregia z/g helbidera edo kulturajardun@topagunea.com posta elektronikora. SMS mezuak 605712469 telefonora edo kulturajardun@topagunea.com postara bidali beharko dira.

## IKASTAROAK

### Aleman ikastaroak Alemanian

Ikasketen Trukerako Zerbitzu Alemanak (DAAD), 2005. urtean Alemaniako Errepublika Federalesko Hizkuntza Institutuetan alemaneko ikastaro trinkoak egiteko 15 beka eskaintzen ditu. Baldintzak: karrerako bigarren kurtsoa amaituta izatea (Germaniar Filologiako ikasleak salbuetsita), goi-mailako ikaslea izatea, gutxienez Goethe Institutuaren "Grundstufe I" mailako eta gehienez "Mittelstufe I" mailako alemaneko eza-gutzak izatea eta 19 eta 32 urte bitarteko adina izatea. www.embajada-alemania.net. Epea: abenduak 12

## EKINTZAK

### Irungo Gazteen Zinema eta Bideo Topaketak

Irungo Udalak antolatuta, Irungo Gazteen zinema eta bideoen IX. Topaketak ospatuko dira abenduak 26 eta 29 bitartean Irunen. Topaketa hauen barruan laburmetraien lehiaketa egongo da. Epea: abenduak 17

## BESTELAKOAK

- Etxebizitza salgai Errabal kaleko etxe berrietan. Garajea eta ganbara barne-sarbidearekin. 687900114
- Etxekolanak egin eta umeak zaintzeko pertsona bat behar da. 943751224



**Juan Mari**  
Arraindegia

**Eguneroko arraina eta konjelatuak**

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69

## Zer irizten dotsazu?

Aldizkariz aldizkari, azkenean 100. alea argitaratzera heldu da Soraluzeko Pil-pilean herri aldizkaria. Zenbaki esanguratsu honetara heldu garenean soraluzetarrek aldizkariaren inguruan duten eritzi kritikoa zein den jakin nahi izan dugu, indarguniak eta gabeziak zein diran.

## Zer gustatzen jatzu gehixen aldizkarixan eta zer gabezia ikusten dozu?



**Jesus Uzin**  
48 urte  
Langilia

Faltan botatzen dot herritik kanpo edo inguruan gertatzen diran gauzei buruzko informaziñua. Gehixen gustatzen jatana da herriko informaziñua eta euskalkixa erabiltzea.



**Esther Iñurrieta**  
43 urte  
Ume zaintzailia

Aldizkaria gustatzen jata, etxian desiatzen egoten gara heltzeko. Gehixen gustatzen jatana argazkixak izaten dira.



**Iohana Lobato**  
13 urte  
Ikaslia

Lehenengo gauzia ikusten ditudana argazkixak dira. Nere ustez gaztiendako gauzak eta txistiak falta dira.



**Unai Gisasola**  
12 urte  
Ikaslia

Ondo dago. Gehixen gustatzen jatana bertsua da, baina egixa esanda ez dot asko irakurtzen.



**Eustakio Altuna**  
71 urte  
Jubilatua

Udaletxian diruakin etaritzen badozue aldizkarixa ez dot ondo ikusten euskeraz bakarrik egitia, ze erderaz bakarrik dakixenak ez dau ulertzen eta bere zergak ordaintzen ditu eta eskubidia dauka.



**Nerea Isasti**  
30 urte  
Kazetarixa

Erreportaia da irakurtzen doten lehenengo gauzia. Biharrezkua ikusten dot herrixan Pil pileanen moduko aldizkari bat, ze euskararen alde egitteko ezinbestekua da.

**JAVIER ALONSO ZELAIETA**

434 ZENB.KOL

**HORTZ  
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

**EDURTZA** kafetegia


Taberna eta jatetxe zerbitzua



**Eguneroko  
menua eta  
pintxoak**


Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

# Soraluzeko alkatetzan sei urte egin eta gero, Alberto Sudupek alkatetza laga du osasun arazoak direla eta



Osasun arazoaren ondorioz azaroaren 3ko Udalbatzarrean utzi behar izan zuen Alberto Sudupek Soraluzeko Udaleko alkatetza, karguan aurreko legegintzaldi osoa eta azken honen hasierako bi urteak bete ondoren. Albertok 1999ko ekaineko hauteskundeetan lortu zuen alkatetza. Or-

duan, 966 soraluzetarren bozka jaso zuen hautagaitzat aurkeztu zuen EAJko zerrendak. 2003ko hauteskundeetan ere gehiengoa lortu zuen EAJ-EA koalizioarekin, 1.263 bozka jaso ondoren. Sudupe alkatetzan izan den 6 urteetan, egitasmo ugari jarri dira martxan herrian, hirigintzakoak bereziki; Izartu egitasmoa, etxebizitza berrien eraikuntza, Saziako lantegiaren eraiketa, San Andres eta Ezoziko auzuneetako aisialdi gunean, ikastetxearen, kiroldegia zati baten eta ikastolako frontoia eraberritzea.... Hirigintzan bezala gaintzeko alorretan ere aspaldiko legegintzaldirik biziena izan da (Bai Euskarari akordioa, Pil-pileanekin hitzarmena ...). Udalak, datozen egunetan "eskarreneko plaka bat" eskeiniko dio urte hauetan egindako lanaren adierazgarri tizat gorde dezan.



## E.H.E.-en 25. Urteurrena

Joan den azaroaren 24an Soraluzeko Euskal Herrian Euskeraz-eko ordezkariak prentsaurrekoa eskeini zuten kiroldegiko erakusketa gelan. Azken 25 urteotako balantzea egiterakoan gogorarazi zuten oraindik ez direla euskaldunon hizkuntz eskubideak errespatazen eta eginkizun hortan ezin bestekoa dela aldeko hitzak utzi eta euskal gizarte eta instituzioek benetako konpromisoak hartzea. Herri mailako egoerari

dagokionez, Udaleko euskararen ordenantza betetzea eta Osasun Zentroan euskerazko zerbitzua bermatzea izango dituzte helburu nagusi. 25 urteak ospatzeko ekintza desberdinak antolatu dituzte eta datozen urteetarako lan ildo desberdinak markatu. Urteurrenako ekitaldi nagusia Iruñeko Anaitasunan ospatuko da abenduaren 18an. Antolatzailerik autobusa jarriko dute bertara hurbildu nahi dutenentzat.

## HHIko ikastaroen izen ematea zabalik

Urtero moduan HHI-k (Helduen Hezkuntza Iraunkorra) helduendako eskulan tailerrak antolatu ditu abenduaren 9tik 21era bitartean egiteko. Izena emateko epea zabalik dago azaroaren 22tik. Besteak beste; apainketarako elementuak, jaiotza, hiru dimentsiotako lanak eta gantxilo ikastaroak eskeintzen dira, astean bi ordukoak.

## Mediku aldaketa ambulategian

Carlos Pardo, azken urteotan Soraluzeko osasun zentrotako mediku izan denak Bizkaiko Mendata herrian jarraituko du berre lanbidea. Pardoren lekua beteko duen medikua abenduan iritsiko da. Ordura arte Jabier Marco de Juana arituko da gaixoak sendatzen.

**kutxa**  
gizarte ekintza

**TXOKO KAFETEGIA**

*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*  
Kalebarren 22 behea, telf: 943751789


# Zorionak eta eskerrik asko!

100. ALEKO GEHIGARRI BEREZIA



**@**  
**plipilean**

# Morrela egiten




**PLUBLIZITATEA** , - Ugaitz Catalan da publizista eta herriko merkatariari eskeintza bereziak egiten dizkie.




**ERREDAKZIO BATZODEA** - Aldizkarian aterako diren gai eta elkarrizketak batzordean erabakitzen dira eguenean.




**KALE KANTALEAN** - Edozein herritar harrapatu eta mahai baten inguruan galdekatzen dugu. Prentsa arrosa!



**BERTSOA** - Kale Kantaleko elkarrizketatuari adarra jo edo lausengatzeko bertsolaria jartzen dugu lanean.




**MAKETAZIOA** - Idatzitakoa antolatu eta aldizkaria n txertatutu behar da, argazkiak eta testua kokatuz.



**INPRENTA** - Maketa KDan hartu eta inprentara aguro, barikuan makinatik bero bero atera dadin.




# da Pil-pilean




**INFORMAZIOA BATU** - Aukeratu diren gaiak sakontasunez lantzeko informazioa batu behar izaten da herrian.



**KALE INKESTA** - Grabagailua eta kamera hartuta herri-tarrei gaurkotasuneko gaien inguruan galdetzen diegu.




**ERREDAKZIOA** - Herrian batutako informazio ordenagailuan erredaktatu behar da, sakontasunez eta objetibotasunez.



**DISEINU LANA** - Azaleko irudi bereziak eta koloretako iragarki landuak estiloz diseinatzea ere ez lan erreza.



**BANAKETA** - Bariku iluntzean edo zapatu goizean aldizkaria banatzeko gertu dago banatzaile taldea.



**IRAKURLEAK** - Herrian 1.700 ale inguru banatzen dira eta kanpoko plazentziarrei bidaltzen zaizkie beste 150 inguru.

# Pil-pileaneko erredakzio burua

*Etxebarriko berri-harrapatzaile nekaezina eta bihotz oneko azeri-kazetaria da. Pil-pileaneko erredakzio buru izateaz gainera, betsolari ere bada; aurkezle, apostulari, argazkilari, giza-perejil, dantzari, katxondo, filarmonika eta adar jotzaile, mila ofizio eta afizio, hankabiko bakar batentzat. Baina eze-zen gainera euskaltzale da, beti lanerako eta inori laguntzeko prest dagoena. 100. Ale honetan; aldizkari-az, komunikabideetaz, euskeraz eta gure herriaz galdetu diogu eta gogotsu erantzun ditu gure galdera guztiak. Oraingoan berari eman diogu bere ohiko botikatik probatu dezan.*

## Noiz hasi zifan Pil-pilean idazten?

Akordatzen naiz AEKn Pil-pilean sortu zala eta deialdi zabal bat egin zebela, 1996ko urtarrilaren kaleratu zuten lehenengo alia. Orduan ez neukan AEK-kin inongo harremanik, baina kulturarako zaletasuna banekan eta lagun batzuekin batera sartu nintzan, hirugarren alerako edo.


## Zertan aldatu da Pil-pilean ordutik hona?

Begi bistan dago. Garatzen jua da, batez be inguruko aldizkari batzuegandik ikasi dogulako. Hasieran lagun talde bat zan eta funtzionario asanblearixua zaukan. Orduan 4 hilabetian behin etaraten zan eta Plaza Barrixan banatu. Pentzau! baina ez zan ale bat be sobratzen!

Maketatzaillia jarri zan lehenengo diru sari batekin eta gero poloki poliki ni jua nitzan kazetari arduria hartzen. Gero, hilabetekari bihurtu zan 1999ixan eta hamabostekari 2002xan. Hortxe jo genduan goixa, bai maiztasunian eta bai funtzionamenduan. Gaur egungo funtzionamendua aldizkari estandar baten "antzekua" da baina hain txikixa danez lagun giroka da.

## Zela bizi izan dittuzu zuk Pil-pileaneko urtiok?

Neretako Pil-pilean oin 3-4 urtetik nere bizitzako ardatza izan da, ez dot beste lanik ezagutu. Aldizkariarekin batera kulturagintza eta euskalgintza be lantzen jua gara eta elkartia haunditzen jua dan ehinian buru belarri honetara dedikatu naiz Pil-pilean lan egin eta aldizkari eta elkartia sendotzen. Euskal Filologiako ikasketak be amaittu barik dauzkat oindio, lan hau pixkat do-



Ordu asko pasatzen ditu Egoitzek Pil-pileaneko ordenagailu aurrean jarrita.

*"Poliki poliki jua gara aldizkari hobetzen. Oindio falta jaku irakurterrezagua egitia, zuzenketak..."*

minatu arte zurrubilo haundi bat izan dalako neretzat. Oso lotua da. 17 Urtekin sartu nitzan eta oin 25 urte dauzkat, hainbeste urtetan gauza asko ikasten dira.

## Bizitzeko beste irabazten dozu ala?

Horixe galdetzen dosta jente askok, gurasuak batez be. Nik beti sinistu izan dot lan honek merezi dabela eta lan egin ahala baldintzak hobetuko zirala. Horixe da bide bakarra aldizkariak eta elkartiak iraun deitan, oinarrizko lan baldintza batzuk jartzia, bestela akabo. Baina sarrerak ez dira Udalarenak bakarrik, herriko merkatarixak eta bazkidiena da diru sarrerarik garrantzitsuena. Herriko merkatarixak eta komerziuak beti erantzun doskue izugarri ondo eta gu be saiatzen gara eurei ahalik eta publizidade onena eskeintzen. Oin hiru urte inguru soldata txiki bat jarri zan. Aurten Udalarekin hitzarmena sinatu dogu eta diru gehituago emon dosku egun erdiko kontratu bat egin ahal izateko bat aldizkarirako, neria, beste bat kulturarako,

Ugaitzena. Baina inprentiak diru asko eruaten dau eta ez dogu hilero kobratzen.

## Eta hori kontuan izanda zela dago gaur egunian Pil-pilean aldizkari?

Bereiztu leizke alderdi asko. Giza baliabide aldetik jente beteranua lagatzen jua da, gehixenak kanpora jua bihar izan dabelako eta beste batzuk beste betebihar batzuk dittuelako. Oin jente gaztia dago, zortzi bat lagun, eta horrek bere alde onak eta txarrak dauka. Onak gehixago. Gaztiak izanda, borondatez lan asko egiten da eta aldizkari kritiko eta bixi bat egiten be laguntzen dau. Txarrerako da esperientzia falta baina hori urtiekin hartzen da. Ekonomikoki ez gare txapliguak botatzeko moduan baina badaukagu egonkortasun minimo bat oinarrizko egitura hori mantendu eta garatzeko. Eta produktu moduan poliki-poliki hobetzen jua gara, maketa eta eduki aldetik maila on bat lortu arte. Oindio falta jaku aldizkari irakurterrezagua egitia, zuzenketak...

## Aldizkariak herrixan ze harrera daukala uste dozu?

Ona. Ni egixa esan aldizkariko mundutxuan bizi naiz eta barrutik ikusita ez da erreza harrera zelakua dan neurtzia. Baina konturatzen naiz juaten garanian edozein tokitara, elkarrizketak egittera,

publizidadia... jentia oso ondo portau izan da gurekin. Gainera zeozer oker etarutzen dogunian kekek egoten dira eta hori seinale ona da, horrek adierazten dau jentia irakurtzen dabela eta okerrak be egitten ditudugula. Ahalegintzen gara jentian intereseko eta hurbileko gaixak lantzen, baina egin biharko dogu inkesta bat noizbait.

### **Eta politika kontuak toreatzen zela?**

Ja, ja, ja! Nahikua lan! Gogotik saiatzen gara kritikuak izaten, herritarrei kontuak ahalik eta argixen erakusten eta baita alperriko polemikak ez pizten be. Hasieran benetan estutu izan ginan gai honekin. Igual ez estutu izan gintuztelako... mundu hori holakotxia dalako berez, eta nundik nora doian ikasi arte ez da erreza izaten momentu bakoitzian aldizkarixan idatzi biharrekua zer dan jakitzia. Aldizkari baten ildo editoriala ondo lantzen da norbera danian kapaz ulertzeko eztabaidatzen diran gai horrek. Eta hori ikasten da hankia sartzen eta kolpiak hartzen baina ikasi egiten da autonomiaz jokatzeko. Baina hori gai guztiekin pasatzen da, esperientzia hartzen zoziaz ehinian lan hobia egiten dozu eta informaziño hobia eskeini. Erredakzio batzordian pentsaera ezberdinak izatia be oso garrantzitsua da.

### **Zela lortzen da herrixan hainbeste informaziño ezberdin batzia?**

Urtiekin jente eta talde asko ezagutzen dozu eta badakizu nun sortzen dan barrixa eta zeini galdetu bihar jakon. Askok mobidu bihar da baina egixa esateko azkenerako automatikoki urtetzen dotsu eta horixe da txarrena. Urtezen dozu kalera eta beti zare kazetari txipakin, danian muturra sartu bihar. Hori ona da informaziñua lortzeko baina batzutan itto egitten zara. Oso aberasgarria da pertsona moduan, asko ikasten dalako gai askotaz baina larregi jakitzia be ez da ona izaten beti. Gutxiegi jakitzia be ona ez dan moduan.

### **Ze erreportai edo berri etara dozu gustoren?**

Nik gustoren etara dotena Eitzakotxoko Oierren gainianegin genduan erreportaia izan da. Haura izan zan gehixen ikutu ninduana. Zorionez oin orduan baino hobeto dabiz eurak be. Ez dakit lortzen dogun baina saiatzen gara guregana jotzen daben daneri ahal dogun eta gehixen laguntzen. Horretan saiatzen gara sendo, horixe dalako gure lana, herrixaren zerbitzura eta eskura egotia beti.

### **-Euskeraz ez dakixen plazentzia-**



**Ahoan purua hartuta harrapatu dugu Egoitz aldizkarian .**

*“Herrixaren zerbitzura egoten saiatzen gara sendo, horixe dalako gure lana”*

### **tarrak zer pentsauko ete dau aldizkarixagaittik?**

Ba esango neuke erdaldun zahar gehixenak entenditzen dabela zegaittik etarutzen dogun euskeraz, ze gaztiak danok dakigu. Sarritan euskaldunak berak dira txarrenak. Eta Sorluzen ez bada naturala zeozer euskara hutsian etaratzia, nun da ba? Inun bez? Ba, esaten dan moduan gaztelararen azpizkan aukera bat emotia nahi baldin bajako hain maite dogun gure hizkuntza horri, ezinbestekua da euskeraz bakarrik be zeozer etaratzia. Ala alperrik egin ziran Ikastolak eta alperrik hainbeste izardi bota? Ulertu nahi dabenak ikasi egin biharko dau, geuk beste gauza batzuk erderaz ikasi bihar izaten dogun moduan. Bestela jua kioskora edo piztu telebista edo irraxia... eta esan orduan zein dan elebidun, ondo publikua izan arren. Komunikabidiak, batera edo bestera egitten dabe normala dan moduan. Benetakokomunikabide bat bera be ez dot ezagutzen informaziño berdina euskeraz eta erderaz etaratzeko darena.

### **Etokizunera begira Debabarreneko telebista eta...**

Bai eta euskeraz gainera. Saiatzen gara geure zilborretik harutzago begiratzeko. Prentsa idatzixan bailara mailara pasatzia da hurrengo saltua, inguruko

herrixekin batera bailarako gaixak euskeraz landu ahal izateko. Hori lantzen dihardugu baina oin lehentasuna telebista eta interneta da. Ointxe daukagu eskuartian bailaran euskerazko telebista bat eta interneteko atari bat sortzeko aukeria eta ikusiko dogu zer gertatzen dan. Guk egitasmorik sendo eta merkiena prestatu dogu eta oin erakundien borondatiaren esku dago aukera hau aprobetxatzia. Zoritxarrez jente asko ez da konturatzen komunikabidiak gure eguneroko bizimoduan dauken garrantzixaz. Komunikabidiak gizarte baten norabidia aldatzeko gauza dira gaur egun: bizi ohiturak, baloria...dana. Herritarren eta batez be erakundien esku dago adibidez bailarako telebista euskara elkartien eta Udalen arteko kooperatiba batek kudeatzia edo Localia edo Prisa moduko multinazional batzuek.

### **Pixkat alaitzeko anekdotaren bat kontaik.**

Behin pasau jatan elkarrizketa bat egitera jua eta hiru bider egin bihar izatia. Eta pentzau zelako ganorabakua izan bihar dan hori egiteko eta zelako pazientzia euki bihar daben elkarrizketuak.

### **Eta amaitzeko. Arrate irraxiko irraxisaiuarekin zela?**

Oin bi urte edo hasi giñan albistegixa emoten. Oso esperientzia politta da neretako. Irraxian soltatzen zaitue eta ala, 10 minutu daukazuz barrixak kontatzeko, inungo zensurarik barik. Ez dakit zenbat jentek entzuten daben baina entzuten dabenak inok baino bixkorrago jakingo dittu herriko berrixak.

Argentinako harpideduna

# “Guretako poz izugarrixa da”

*Hamabostero Pil-pileanen 150 ale inguru bidaltzen dira postaz kanpora. Munduko leku askotara heltzen da aldizkaria eta Argentinako plazentziarrei ere iristen zaie. 54 Urtean Buenos Airesen bizi den Miren Loiolarekin (73 urte) berba egin dugu eta begira zer erantzun eman dizkigun. Bihotzez poztu gaitu kontatu digunak!*



Miren Loiola erdian senideen artean.

*“Loiberi be erakusten dotsegu aldizkarixa eta argazkixeri begira egoten dira”*

beti berba egiten zotsen Arantzazuko Amabirjinian inguruan. Nagusitu zanian Euskal Herrira juan zan eta Arantzazura bebai amabirjinia ikustera. Eta bueltatu zanian hemengo abadiari esan zotsan, “nik uste nebana baino askoz txikixagua da barren!” eta abadiak “hori da euskaldunok daukazuen herri mingaittik!”. Handik hilabetera berriz elkartu ziranian mutilak esan zotsan, “Figese que cada dia que pasa la veo mas grande otra vez!”. Guri berdina pasatzen jaku Pil-pileanekin.

Argentinako egoeria hobetu da?

Pixkat hobetu da. Baina pixkat bakkarik.

Honuntz bisitan etortzeko planik badaukazue?

Bai. Danak dabiz esan eta esan, juateko eta juateko. Igual maiatzian edo juango gara. Plazentziara juaten garian, lehenengo gauzia egin bihar dotena da errebistia bisitatzera juan.

Gustora jasotzen dozu Pil-pilean?

Guretako izugarrixa da errebistia jasotzia. Izugarri gustatzen jaku. Karteruak ate azpitik botatzen doskuz kartak eta emoten doskun pozagaittik askotan zain zain egoten naiz eskilaran bertan ia Pil-pilean botako daben. Alabak esaten doste aurpegixan igartzen jatala, “hoy recibiste Pil-pilean!”.

Ulertzen dozue ze ipintzen daben?

Euskeraz ulertzeko askotan irakurri bihar izaten dogu. Gizonak be badauki euskeraz eta bixok ibiltzen gara. Azkenian gehixena entenditzen dogu.

Ze atal gustatzen jatzue gehixen?

Dana. Gehixen fotografixak gustatzen jakuz, herrixa eta jentia azaltzen dalako. Loiberi be erakusten dotsegu. Fotografixeri begira egoten dira eta gustatzen jakue euren aittitta amamen jaioterriko kontuak ikusi eta entzutia. Lehiaketako akatsak topatzen ibiltzen gara. Gainera loiba danak dake nazionalitate bikoitza eta Plazentzian errol-datuta dare.

Herrimin asko emoten dotsue?

Beittu, oin urte batzuk hemen entzundako kontu bat kontatuko dotsut. Bazan hemen mutil bat gurasuak euskaldunak zituana eta iruditxo batekin

Kazetariaren begietara

## 100. Alea

Duela ia zortzi urte kaleratu zen lehendabiziko alea, eta ordutik erabat aldatu zaigu Pil-pilean. Hasieran hiru hilabetetan behin kaleratzeak suposatzen zuen lana gogora ekarri eta orain hamabostekaria dela aintzat hartuta, egun lanean ari direnen lana aitortzea eta goraiatzea nahiko nuke lehenik.

Eduki aldetik hainbat atal jorratzen dira, herriko gaiak, kultura, erreportajeak, elkarrizketak, kirol kontuak, eta abar. Ongi deritzot, baina beharbada bestelako gaiak tarteka sartzea ez legoke gaizki; askoren oroimenean gordeta dauden herriko pasarte edo istorioak berreskura daitezke, edota sukalde lanetan trebeak diren herritarren errezetak jaso, adibidez.

Egia da akatsak, bai ortografikoak bai tipografikoak ere zaindu behar direla. Baina, oro har, zuzen eta garbi idazten da. Maketazioari dagokionez, itxurak hobera egin du nabarmen azken urteotan. Hori bai, hainbat ataletan albiste laburrak edo erreportajeetako sarrerak gehiago bereiztea ongi egongo litzateke.

Horrez gainera, herritarren esku inkesta edo formulario antzeko batzuk jarri daitezke, etxean hausnarketa egiteko eta, gero, euren ekarpenak jasotzeko. Aldizkaria hobetzen lagunduko luke horrek.

Dena den, urteotan egon den aldaketa begibistakoa da; aldizkari txukuna dugu Soraluzen, inguruko edozein herri aldizkariaren parekoa, egunetik egunera lanean gogor ari direnei esker. Horregatik, zorionik beroenak!!!

ELENE ALBERDI  
EITBko kazetaria

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g      ff: 943752150  
138 Postakutxa      Faxa: 943752118

**SORALUZE**

**ARRANO**  
*tabernia*

Telefona 75 24 09

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

**etxera**  
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

# SAPAKo langileak negoziatzen



SAPAKo langileen ordezkariak Udaleko Batzar Aretoan eskeini zuten prentsaurrekoa. Udaleko talde politiko guztietako ordezkariak ere bertan izan ziren.

Joan zen egunean, SAPAKo langileak ordezkatzeko dituen enpresa batzordeak prentsaurrekoa eskeini zuten Udaleko batzar aretoan. Batzordeko ordezkariak azaldu zutenenez, "enpresako zuzendaritzak mendeku moduan hartu du lantegia aldatzeko erabakia, lantegiko lurretan etxebizitzak eraikuntzako pelotazo bat emateko ezintasunagatik". Salaketa horrekin batera, orainarteko negoziatioetan enpresako zuzendaritzak erakutsitako jarrera "diktatoriala" ere salatu zuten, "hasieran bermaturik zeu-

den Andoainera joateko "autobusa eta lanpostu guztien jarraipena ere bermatu gabe" zeudelako. Prentsaurrekoan presio ekimenak iragarri zituzten.

Aste honetan zuzendaritzarekin negoziatio berriak izan dituztela adierazi digu langileen batzordeko ordezkariak eta "egunean hiru txandako lan ordutegia" egitea adostu dutela.

Enpresako zuzendaritzak negoziatioekin aurrera egin eta urtariletik aurrera langilego osoa Andoaingo lantegira aldatzeko asmoa omen du.

# Sakabanaketarekin amaitzeko eskaera



Joan zen zapatuan, ertzainek Anjel Irazabalbeitia "Txorta" ETAKo kidea hil eta Lurdes Txurruka atxilotu zuteneko 10. Urteurrena gogoratzeko ekitaldia egin zen Plaza Barrixan. Ekitaldian, Lurdes Txurrukak Huelvako espetxetik idatzitako gutun bat irakurri zuten, bertan gartzelaldian pasatutako une latzen berri eman eta familia eta lagunei eskerrak ematen zizkien bere ondoan egoteagatik. Estatuaren errepresioa eta sakabanaketa politika salatu eta "gera zikin" horri amaiera emateko eskaera egin zuten Etxerat eta Askatasunako ordezkariak. Ondoren manifestazio bat egin zuten herrian zehar "Txorta herriarena haiz. Lurdes herrira orain." lemapean.

# Intsumiso politikoaren ekimenak



Joan zen egunean herriko hainbat gaztek "Espainiar eta Frantziar estatuen inposizioen aurrean desobediencia zibila sustatzeko" kaejira egin zuten herrian zehar. "Gazte matxinatuak ikur den sardearen irudiak" itsatsi zituzten herriko hainbat tokitan.

## Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra

"Bortxakeriak erakusten du zuen ahuldadea" eta "Erasoen aurrean emakumeak zutik" lemapean elkarretaratzea egin zen egunean (Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzearen Nazioarteko Egunean) Plaza Barrixan. 50 Bat herritar elkartu ziren.

### OROITZA

Azaroaren 19an hil zen Mendaron 71 urte zituela  
**JON IÑARRA ARRUTI** Goian bego

*"Gorputzez juan zaran arren, beti biziko zara gure bihotzetan; gizon, aitta, aittitta eta lagun moduan".*

Sendiak bihotz bihotzez eskertu nahi ditu heriotzaren ondoren dolumina adierazi eta hiletara hurbildu ziren guztiak, mila esker..(Zapatu honetan meza izango da)



# Musika eta kantua herriko kaleetan



Musikariaren zaindari den Santa Zuzenaren egunaren (azaroaren 22a) aitakian musika eta kantu ekitaldi ugari izan da herriko kaleetan. Zapatuan, musika eskolak antolatuta hainbat ekitaldi egin ziren; kalejira goizean eta ka-

raokea eta Galtxagorri txaranga arratsaldean. Iluntzean abesbatzak irten zuen herriko txistulari beteranok lagunduta. Astelehenean berriz, RK Zuloago lagunak ibili ziren tabernaz taberna jai giroan musika joz.

## Kantu gregorianoa zapatuan elizan



Zapatuan, Ezoziko Ama abesbatzak eta Udalak antolatuta kantu gregorianoz osatutako "Izarren bidea" izeneko kontzertua izango da entzungai. Kontzertua Donosti Ereski Schola Gregorianistak eskeiniko du elizan, arratsaldeko 20:00etan hasita..

## "Amore, amore" Karidadeko Bentaren disko berria Durangon

Karidadeko Bentak disko berria (bigarrena) aurkeztu du azaroan. "Amore, amore" da diskoaren izenburua eta Gaztelupeko Hotsak disketearekin kaleratu dute. Domentx Uzin soratuzetar taldekideak ere parte hartu diskoan. Domentxek berak azaldu digunez, "mundu osoko musiken eragina igartzen da diskoan, kabaretaren, bertsoaren eta kultura ezberdinen nahasketa" aurkitu liteke bertan.

### Gaztelupeko Hotsak Durangoko azokan

Karidadeko Bentaren diskoaz gain Gaztelupeko Hotsak disketeak ekoiztutako beste 16 lan aurkeztuko ditu Durangoko Azokan (abenduaren 4,5,6,7 eta 8an). Diskoaz gain, papereko argitalpenak ere aurkeztuko dituzte. Pil-pilean Euskara Elkartearekin elkarlanean egindako eskaintzarekin, herrian disko hauetako batzuk merkexeari erosteko aukera izango da "Gabonetan musika opari" kanpainaren barruan.

## Itxaropenako karta txapelketa



Joan zen barikuan banatu zituzten Itxaropena Jubilatuen Elkarteko karta txapelketako sariak. Briskan, Hilaria eta Maximina izan ziren txapeldun eta Joakina eta Margarita txapeldunorde. Trukean, Victor Trebiño eta Sebastian Arriagak irabazi zuten eta Paco Alberdi

eta Jesus Lopez gelditu ziren bigarren. Musean, Gerardo eta Gregorio Gomez izan ziren garaile eta Teo Ruiz eta Jose Luis gelditu ziren bigarren. Tutean, Julio eta Antoniok jantzi zuten txapela eta Luis Sanchez eta Avelino Ramos txapeldunorde gelditu ziren bigarren.



## MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10  
Telefona 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefona 943 75 13 99  
SORALUZE

## IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze



# Gaztañerre 2004



1



2



3



4

1. Lezari basarrikuak irabazi zeben azokako posturik osatuenaren sarixa. Bigarren Arritxa gelditu zan eta hirugarren Haritza. Ondo merezitako sarixak izan ziran hirurak be. 2. Barazki postuak beste izan ziran artisauiak be. Jente mordoxka ibili zan onenian euri zaparradarik gogorrenak hasi ziran arte. Zozketako zestuaren jaberik be ez zan azaldu. 3. Aurten be ehun lagunetik gora batu ziran kiroldegiko Herri Babajian. Giro bikaina izan zan bazkarixan eta bazkalosteko kopiaren ostian, pelotan jo ta egurra! 4. Eta horren ostian dantza eta parranda ugarri bazan frontoian eta herriko tabernetan. Ez da harritze-ku, barran halako kamarera polittak izanda!



**Kiru  
Muntaiak S.L.**

Blas Elizburu Kortabarria  
Sukalde, enpotratu  
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara  
Tfnoa 943 76 99 85  
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

**Kontulan  
Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Sorluze  
GIPUZKOA

# Azpeitiarra garaile Karakaten



Joan zen domekan jokatu zen Karakatera Igoeran Josu Arregi azpeitiarra izan zen bizkorrena. 30 Minutu eta 42 segundutan egin zuen Elgoibartiko plaza Karakateko puntarainoko bidea, errekorretik 59 minutura gelditu zen.

Zigor Alberdi soraluzetarrak 35 minutu 47 segunduko denbora egin zuen eta 9. heldu zen 16 korrikalariren artekin baina sukar dezima horiek gabe denbora hobe egingo zukeen seguruasko. Bejondeiala!

## Atxa Memoriala ez da egingo

Azkenean aurtengo Atxa Memoriala ez da egingo. Azken asteetan ez da inongo aldaketarik izan eta Udalak ez du antolatzaileen eskakizuna onartu. Antolatzaileek memorialaren aurrekontua (1.800 euro) 1.200 eurotan handitzea eskatu zioten Udalari, memoriala antolatzeko gastu berriei aurre egin eta finantziarioa ziurtatuta izateko, "antolatzeko lanak borondatez egiteko gertu

gare baina dendetan diru eske ezin dogu jarraitu. Udalak gutun bitartez jakinarazi zoskun ezetza eta ordutik ez dogu barbarik egin".

Udaleko Kirol Batzordeburuak, Maite Oregik, Udalak ez duela ekimen partikular bat bera ere %100ean laguntzen adierazi du, "urte guztian lan egiten daben beste talde batzuekiko be dirua bihar dalako".

## Mendi buelta eta babajana



Joan zen asteburuan Deskargatik Karakaterainoko ibilbidea egin zuten mendi taldeak antolatuta. Ohitura duten moduan, eguna Txurruka jatetxean egin zuten babajanarekin biribildu zuten.

### EMAITZAK

#### Futbola

-Azaroaren 20an-  
SORALUZE 0 - Zumaiako 1 (Erre.)  
(9. postuan daude 10 punturekin,  
16 taldeko sailkapenean)

SORALUZE 0 - Iintxa 4 (Juben.)  
(18. postuan daude (azkenak)  
0 punturekin)

Deskantsua (Kadet.)  
(9.postuan daude (azkenak)  
3 punturekin)

#### Esku pilota

##### Atxotegi

Eskuz banaka Kluben Arteko  
Txapelketan Hernanin  
22-08 galdu zuen

### AGENDA

#### Esku pilota

-Azaroaren 27an-  
Atxotegik Elgoibarren jokatu du  
Azpeitiaren aurkako semifinala.

#### Futbola,

-Azaroaren 28an-  
Soraluze - Eibartarrak (Erreg.)  
Soraluze - Zestoa (Juben.)  
Bergara - Soraluze (kadet.)

-Abenduaren 5ean-  
Amaiak bat - Soraluze (Erreg.)  
Soraluze - Orioko (Juben.)  
Soraluze - Urki (kadet.)

#### Mendi Taldea

-Abenduaren 19an-  
Izazpe (967m) mendira.  
(Zumarraga inguruan).

**Gogortuz**  
Fisioterapia zentrua

Oier Oregi Unamuno

**943 75 00 22**

Santa Ana kalea 7 Soraluze Gipuzkoa

**Instalaciones Kalebarren S.L.**

GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES



# Gorka Oregi

*"Alokairua oso garesti dago... erakundietatik laguntzak egon bihar lirake!"*

Garrori elkarrizketa egin ostean, argi ikusi dut mahai baten inguruan egin beharreko elkarrizketa dela Kale Kantaleanekoa. Zerbait jan eta ardo pixkat edan ostean jendeak lasaiago erantzuten ditu egindako galderak, aurkikuntza hau eginda afari pasada egitteko geratu naiz Gorkarekin, hor doa pilpileanen beste eksklusiba bat.

## Izena, edadia, lanbidia...

Gorka Oregi 24 urte. Lanbidez elektrisista eta ikaslia.

## Ez dittuk pertsona

### bakarrandako gauza larregi?

Ahal dana egitten da, zeozer nahi dabenak...

## Laburbilduz, dana eta ezebez!

Poliki-poliki egingo jittuau.

## Zuek hiru anai izanda, bata

### bestiakin aldatzeko aukeria

### emongo dotsue, ez?

Oier eta Ion-ek nik baino lenago etara juen karneta, ni beren karnetakin ibiltzen nintzuan, trankil trankil.

## Zelakua dok Gorka?

Pertsona alaia, ona, kirolarixa, gauza desberdinak egittia gustatzen jakona.

## Zein kirol?

Danetik probau bihar dok, ski-a, treking-a, pala... urtetzen dana, barrixa badok hobe.

## Pil-pilean 100 alera heldu da.

### Zela ikusten dok oinarteko

### ibilbidia?

Ondo ikusten juat, herrixari bizittasuna emoten jotsak, hasieratik asko aurreratu jok.

## Nora, zeinekin eta zertara?

Mendirra, lagun edo eta neskiakin ondo pasatzera.


## Eta zeinekin ez?

Lagun portatzen ez dakixenekin.

## Amets edo desioren bat?

Etxe bat erosteko dirua, gaur egunian gauzak daren moduan... alokairua oso garesti daok baina balego... horrekin konformatu bihar, ez dok larregi eskatzia. Erostiakin berriz pentzau be ezin leike egin.

## Erakundiak be zeozer egin



Gorka Oregi

## Bertso Begiz

*Mahai baten bueltan,  
afariketean,  
gabeko hamaikak jo dotsez bertan.  
Etxe merkerik ezin topatu,  
restop frantsez batian dutxatu!  
Tipo xalaua!  
ta ez da askoz serixuaua,  
hustu aurretik botila-ardaua!*

*Neko*

*(Doinua: Juana Bixenta..)*

## biharko leukiek?

Laguntza gehixao emon biharko lirake. Oin dakanari emoten jotsek eta ez dakana, kalera!

## Anekdotaren bat be eukiko dok kontatzeko modokua...

Behin Frantziako "restop" baten Kataluniako lagun batekin, mangera

bat kumunetara pasau eta kumuna garbittu ostian, bertan dutsau ginane-kua adibidez.

**Hik egitteko ez dok gutxi.  
Besterik bare eskerrikasko eta hurrengo afaixa hire kontu.**

Hori eginda daok.



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



**Jose Antonio S.L.**  
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49  
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

## Argazki zaharra



**Zuzenketa.** Aurreko aleko argazkian, Damian Cacho guardia zibila zela adierazten zuen Udaletik jasotako idatziak baina oker zegoen. Juan Cacho zen guardia zibila baina ez zen argazkian ageri.

## 1987Ko kontzertua zine zaharrian

**A**rgazkian Ines Mari zuzentzen zeban musikari gaztien taldea, "Soralue"-n, elizondoko zine zaharrian, eskeinitako kontzertuan. Urte batzuk beranduago sortu zan Musika Eskola. Goiko ilaran; Ines Mari, -, Xuban C., Suar A., Olatz O., Itziar U., Nagore J., Maria E., Judith L., Ainhitze E., -, Aritz O., Inazio L., Egoitz U., Jon B., Ander E. (+), Eñaut U., Aidor A. Beheko ilaran; David Bouzas, -, Aiora E., Alazne F., Nerea B., Oregi, Xabier R., Urko A., Julen R., Leire R., Oregi, X. Mikel Cruz soinu teknikarixa be ageri da bizkarrez.

*Iturria: Maria Egaña*

## Lehiaketa



Zein da argazkiko  
elkarrizketatua? zein  
elkarrizketatuko zenduke zuk?

**Bi lagunendako  
afari mundial bat  
irabazi zeinke!!**

DEITTU

**943 75 13 04 ra**

erantzuna...:  
lehiak bikoiztuta  
eta plazako marra bat kenduta

**Aurreko alian... Kalabaziak 123kilo zeuzkan.**

**...eta irabazlea: Ana Mari (Argateburu)**

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!**



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



**HNOS. BENITO  
ANAIK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# ZORIONAK!! eta urte askotarako

Kamisetak salgai  
Musika eskolan



Soraluze  
musika eskola  
148 p.k., 20590 SORALUZE  
Tel.: 686 263 474

## 25. urteurrena

# OITXURRI

tel. 605768151  
GABOLATZ  
28 BEHEA


ARDORIK ONENAK  
OITXURRIRENAK!

urteko ardoak - 2 € tik aurrera  
Balagu  
BASOCO  
mitarte  
f. fdez gomez



kriantzak - 4,50 € tik aurrera  
h. de don tomas  
solaguen  
valserrano  
pierola

ERRESERBAK - 9,50 € tik aurrera  
valserrano  
solaguen  
pierola




# Gabonetan euskal musika opari




**KARIDADEKO BENTA**  
"Amore amore"  
Prezioa: 10 €  
8 € bazkideak



**SENPERENA ANSORENA**  
"Chillida Lekuti"  
Prezioa: 10 €  
8 € bazkideak



**BIDE ERTZEAN**  
"Esan bare"  
Prezioa: 10 €  
8 € bazkideak



**MIKEL URDANGARIN**  
"Lagun artean" DVDa  
Prezioa: 10 €  
8 € bazkideak



**TXUMA MURUGARREN**  
"Nire anaiaren kotxeiko argiak"  
Prezioa: 10 €  
8 € bazkideak



**LIZARDI**  
"Parisko Txolarrea"  
Prezioa: 10 €  
8 € bazkideak

Beharpeneko opariak eskuratzeko bidea:  
1- 943 75 13 04 telefonora deitu (PI-pilean)  
2- pilean@euskalnet.net helbidera mezua bidaltu  
3- Iratxo goxodindan  
4- Astelurutan kalean jarriko diren postuetan  
Eskaintza hau Abenduaren zetik Urriarraren sera (zango da zaharrik)



# EZOZIA

## JATETXEA

Zatoz eta gozatu  
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk  
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua  
eta aukera zabala kartara.

**Ezozi Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE**